# INTERVENCIÓN SOCIAL DE BIZKAIA, EN LA ENCRUCIJADA

**La demanda de la Inclusión Social ha aumentado un 20% en Bizkaia durante los años de crisis, pero para 2017 se prevé un recorte de 600.000 euros**



El proceso de cambio del Sistema Vasco de Servicios Sociales finaliza el próximo 25 de diciembre, con el desarrollo de la Cartera y el Mapa de Servicios Sociales. A partir de ahí, los Servicios Sociales se considerarán derechos subjetivos y el Plan Estratégico 2016-2019 comenzará a desplegarse. Este proceso plantea, no obstante, muchas dudas en Bizkaia. Por un lado, los Servicios Sociales se dividen en dos áreas forales -Servicios Sociales e Inclusión Social-, y por otro, se teme el impacto del plan tanto en entidades, usuarios como trabajadores.

### Más recortes de la Diputación, agravan la exclusión

Si bien preocupan las dos áreas forales, es en Inclusión Social donde más problemas vemos. El presupuesto de la Diputación Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad para 2017 cae en 1,5 millones de euros y habrá 600.000 euros menos para la Inclusión Social. Una bajada que se enmarca dentro de la política de recortes que lleva a cabo la Diputación y que afecta también a otros sectores de bienestar social. Todo ello ocurre, además, cuando la crisis ha aumentado las necesidades de Inclusión Social en Bizkaia: 24,6% en 2014. Cuatro puntos más que en 2008, lo que supone un incremento del 20%, según la tasa de Arope Bizkaia.

## LAS EXIGENCIAS DE ELA

### Interpelación a las instituciones

Como sindicato que defiende los derechos de los trabajadores, la justicia social y unos servicios públicos de calidad y universales, hemos registrado una solicitud de reunión con los máximas responsables de Bizkaia en la materia: la Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, y el Director General de Inclusión Social, Óscar Seco, para aclarar el panorama de incertidumbre que se respira y asegurar que no habrá un impacto negativo en la estabilidad y las condiciones de trabajo en este sector.

### Propuesta de un convenio digno

Como sindicato mayoritario en el sector de Intervención Social, vamos a luchar no solo por mantener los puestos y condiciones laborales, sino además, por mejorarlos. Presentamos una plataforma que integra estabilidad en el empleo, incrementos salariales del 5% para los dos próximos años, reducción de jornada hasta las 1592 horas anuales, mejoras sociales y garantías de aplicación. Las condiciones de las plantillas subcontratadas y conveniadas están muy lejos de las del IFAS o Udalhitz, y tenemos que tender a la equiparación.

### Organización y trabajo sindical

En el actual contexto de crisis, algunas entidades de Intervención Social han cerrado, otras han llevado a cabo reducciones de plantilla y casi todas han acometido reestructuraciones y ajustes de salario, jornada o funciones. Esta situación no se puede mantener, porque éste no es un sector al uso. Tenemos unos servicios que son de titularidad pública y debe darse una implicación garantista de las condiciones laborales y de la calidad del servicio, con una patronal y unos sindicatos comprometidos con unas demandas justas.

*Contra la exclusión y la precariedad, ¡¡trabajadores/as en lucha!!*

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
ela.eus

# BIZKAIKO GIZARTEGINTZA BIDEGURUTZEAN

**Gizartegintzaren zerbitzua %20 gehiago eskatu da Bizkaian krisiaren urteetan, baina 2017an 600.000 euroko murrizketa egitea aurreikusita dago.**

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema aldatzeko prozesua abenduaren 25ean amaituko da, orduan Gizarte Zerbitzuen Kartera eta Mapa zabalduko dira. Handik aurrera gizarte-zerbitzuak eskubide subjektiboak izango dira, eta 2016-2019 Plan Estrategikoa hasiko da garatzen. Prozesu horretaz, hala ere, zalantza ugari sortu da Bizkaian. Alde batetik, gizarte-zerbitzuak banandu dira bi foru-arlotan --gizarte-zerbitzuen arloa eta gizarte-inklusiokoa--, eta bestetik, planaren eraginari beldur diote sektorean, ez baitago jakiterik eragin hori noraino helduko den elkarteetan, erabiltzaileengan eta langileengan.



### Foru Aldundiaren murrizketek esklusioa larriagotu

Bi foru-arloek kezkatzen bagaituzte ere, Gizarte Inklusiokoa da gehien kezkatzen gaituena, hor arazo gehiago ikusten baitugu. 2017an, Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Inklusio eta Berdintasun Sailaren aurrekontuak 1,5 milioi euro egingo du behera eta Gizarte Inklusiorako 600.000 euro gutxiago izango dira. Murrizketa-politika baten ondoriozkoa da aipaturiko beherakada, eta baita gizarte-ongizatearekin loturiko beste sektoreetan gertatuko direnak ere. Krisiaren testuinguruan gizarte-inklusioko beharrizanak %24,6 handitu dira Bizkaian 2014an. 4 puntu gehiago 2008tik, hori Arope Bizkaiaren tasaren arabera %20ko hazkundea izan da.

## ELAREN ESKAKIZUNAK

### Interpelazioa herri-erakundeei

Langileen eskubideak, justizia soziala eta kalitatezko zerbitzu publiko unibertsalak zaintzen dituen sindikatu garen aldetik, eskari bat erregistratu dugu, arlo honetako Bizkaiko arduradun nagusiekin bilera bat egiteko: Enplegu, Gizarte Inklusio eta Berdintasun foru ahaldun Teresa Laespadarekin, eta Gizarte Inklusioko zuzendari orokor Oscar Secorekin, dauden zalantzak argitzeko eta ez dela kalterik eragingo sektore honetako egonkortasunean eta lan-baldintzetan ziurtatzeko.

### Hitzarmen duina izateko proposamena

Gizartegintzaren sektorean sindikatu nagusia garenez, oraingo postuak eta lan-baldintzak mantentzeaz gain, hobetzen ere ahaleginduko gara. Horregatik, gure plataforman honako hobekuntza hauek sartuko dira: enpleguaren egonkortasuna, %5eko soldata-igoerak hurrengo bi urteetan, urteko lanaldia murriztea 1592 ordura iritsi arte, hobekuntza sozialak eta aplikazio-bermeak. Gaur egun azpikontratetako eta itunpeko plantillen baldintzak oso urruti daude IFAS edo Udalhitz-en baldintzetatik; beraz, lan-baldintzak parekatuz joan behar gara.

### Antolamendu eta lan sindikala

Oraingo krisian gizartegintzaren zenbait elkarte itxi dira, beste batzuetan plantilla murriztu da, eta ia guztietako soldatetan, lanaldietan edo eginkizunetan berregituratzeak eta doikuntzak gauzatu dira. Gure iritziz egoera horri aurre egin behar zaio, Gizartegintza ez da beste edozein sektore bezalakoa. Hemengo zerbitzuak titulartasun publikoarenak dira, eta beraz zerbitzuko lan-baldintzak eta zerbitzuaren kalitatea bermatu behar dira. Patronalak eta sindikatuak engaiatu behar dira eskari zuzenekin.

*Bazterkeria eta prekaritatearen aurka,*
*langileak borrokan!!*

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
ela.eus